

1.e4 e5 2.f4 d6 3.Ac4 c6 4.Zf3 Ag4 5.fxe5 dxe5 6.Axf7+ Exf7 7.Zxe5+ Ee8 8.Dxg4 Zf6 9.De6+ De7 10.Dc8+ Dd8 11.Dxd8+ Exd8 12.Zf7+ 1-0

Errege-ganbitoa ikus dezakegu, garai hartako nahitaezko irekiera, baina beltzek akatsa egin zuten, d4n alfilaz iltzatu zutelako eta Af7+ latza jokatzen utzi zutelako.

Zurien eraso bat-batekoa izan zen errege beltz babesgabearen aurka, eta partida f7n eraso bikoitz batekin amaitu zen.

Greco, G – NN [B00]

Europe, Europe, 1620

1.e4 b6 2.d4 Ab7 3.Ad3 f5 4.exf5 Axc2 5.Dh5+ g6 6.fxc6 Zf6 7.gxh7+ Zxh5 8.Ag6# 1-0

Damaren fianchetto-defentsak; beltzek era materialistan jokatu zuten, diagonalean eraso eginez, f5en. Gogor zigortu zituzten damaren sakrifizio eder baten eta (eroaren antzeko) matea emanez g6n, alfilaz.

RUBINSTEINEN HILEZKORRA

Irekiera peoiak eta damaz. Zuriek endrokea bistan utzi zuen, batere zuhurtziaz gabe, eta sakrifizio-sinfonia batez zigortu zuten; horrek pieza zuriak desbideratu zituen, diagonaletan zigortu ahal izateko.

Alfil-bikoteak endrokearen diagonaletan erasoan duen indarra erakusten duen adibide egokia da.

Amaierako diagrama ederra da: zuriek dama iltzatuta dute eta ezin dute h2ko matea saihestu, beltzek Dh3 jokatu ondoren.

NN-Greco

Partida ospetsua da. Irekiera italiarra izan zuen; zaldi bat entregatu zen pieza defendatzailea jateko eta dama pasarazteko. Partida ostiko-mate historiko batekin amaitu zen.